




EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

TXOSTENA 2015



www.ongdeuskadi.org

Aurkibidea



01. AURKEZPENA

03

02. NORTZUK GARA?

05

Misioa, Baloreak,
Lan ildoak,
Barne antolaketa

03. GURE JARDUERAK

08

Euskadi, Araba,
Bizkaia, Gipuzkoa

04. KOORDINAKUNDEKO

32

KIDEAK

Gobernu Batzordea,
Lan-taldeak,
Erakundeetan partaidetza,
Talde Teknikoa,
GGKEak, Lankideak

05. KONTU ARGIAK

35

I. Aurkezpena



TOKIKO EKINTZEN ONDORIO GLOBALAK

Duela urte batzuk, Estatuan murrizketa handiak egiten hasi ziren gizarte-politiken alorrean, besteak beste, garapenerako lankidetzan eta eskubideetan. Murrizketa-bolada horrek domino-efektua izan zuen eta gure ingurura ere iritsi zen. Horrek kezka handia sortu digu, gure sektorean ondorioak izan ditzakeelako eta ahuldu egin dezaketelako.

Gizarte- eta politika-alorretan eragiteko egiten dugun lanari eta aldian-aldian egiten ditugun ikerketei esker,

egiaztatu dugu aurrekontu-murrizketek bere horretan jarraitzen dutela, nahiz eta zenbait euskal erakundek, murrizketa horiek justifikatzeko, aipatzen zuten testuinguru ekonomikoak eragindako "doikuntza isolatuak" zirela. Are gehiago, kasu batzuetan, murrizketa horiek betiketzen ari dira. Nolanahi ere, aitortu beharra daukagu beste erakunde batzuk ahalegin handia egiten ari direla. Izan ere, testuingurua aurrekoen bera izan arren, horiek bai, horiek ari dira bultzatzen kalitatezko lankidetzak; hain zuzen ere, horrelako politikak

izan dira euskal gizartearen nortasunaren marka urteetan. Horrenbestez, ekitaldia ixtera goazela, ohartzen gara ez dagoela lankidetzak-politikak errekuaratzeko egiazko zantzurik Euskadin.

Erakundeen alorrean hori guztia gertatzen ari den bitartean, gure eguneroko bizitzan, gure herri eta hirietako kaleetan, bestelakoa da errealitatea. Euskal hiritarren us-tez, beharrezkoa da pobrezia eta berdintasun ezaren aurkako borrokan inplikatzeko, haren ondorioek edonori

eragiten diotela ere, izan gure inguruko pertsonen, izan urruneko herrialdeetako herritarrei. Pobreziak eta berdintasun ezak argi eta garbi urratzen dituzte giza eskubideak; eta horiek sufrizten dituzten pertsonak dauden bitartean, gizateriak ezin du beste aldera begiratu. Euskaditik ere ezin dugu hori egin.

Nazioarteko lankidetzaren garrantzia azpimarratzeko, eta herritarrei erakusteko zer-nolako tresnak dituzten eskura gizartea eralda dezaten, ekintza ugari egin ditugu: prestakuntza-jarduerak, sentsibilizazio-kanpainak eta ekimenak, kaleko ekintzak eta mobilizazioak. Aurten, foru- eta udal-hauteskundeak izan ditugu, eta alderdi politikoekin ere hitz egin dugu konpromiso garbiak har zitzaten sektore honetan.

Munduan milioika errefuxiatuk bizi duten egoera ikusita, gure sektorean ezin izan gara ezer egin gabe geratu. Horregatik, erabaki dugu errefuxiatu eta migratzaileak babesten dituzten beste sare edo kolektibo batzuekin indarrak batzea.

Lankidetzaren testuingurua aldatzen ari da gaur egun; hori dela-eta, aurrera jarraitzen dugu *Urrats bat gehiago* izeneko hausnarketarako barne-prozesuan. Horri esker, bide berriak ezarri ahal izango ditugu, hobeto ibil gaitezten egoera likido eta aldakor honetan.

GGKEi gai ugari buruzko aholkuak eta babesa ematen jarraitu dugu, eta haien ondoan izan gara haien helburuetan. Nola ez, Koordinakundera informazio bila etorritako partikularrak ere orientatu ditugu.

Gure ekintza guztien abiapuntua genero-ikuspegia izaten da; izan ere, ziur gaude ez dagoela garapenik, baldin eta ez bada neurri berean gertatzen gizon eta emakumeentzat.

Bide honetan lagunak izan ditugu. Ezin zen beste modu batean izan. Ziur gaude sarean lan eginda ekiteko eta eragiteko gaitasun handiagoa lor dezakegula; eta horregatik, gure helburu berak dituzten beste sare, eragile eta gizarte-mugimendu batzuekin aliantzak izaten jarraitzen dugu. Komunikabideek ere babesa eman digute, gure jarduera eta aldarrikapenekiko interesa agertu baitute.

Ezin gara geldirik egon, ikusita garapenean nagusi dela pertsona askoren aurkako (bereziki emakumeen aurkako) eredu predatzailea, eta eredu horrek betikotu egiten duela elite bat aberastea. Ildo horretan, gure sarea osatzen duten erakundeek eta beste sektore batzuetako talde eta gizarte-mugimenduek egunero-egunero azaltzen digute zer pauso eman ditzakegun garapenerako beste eredu bat eraikitzeko; eta hala, erakusten digute "errealitatea eraldatu egin daitekeela", Eduardo Galeanok zioen bezala.

Azkenik, gizarte zibilak bere ahalmena erabil dezaten eskatzen dugu, bai biziki nahi dugun gizarte-transformazioa lortzeko, bai pobreziaren eta berdintasun ezaren aurka borroka egiteko, bai pertsona guztien giza eskubideak defendatzeko, bai eta gizartean justizia soziala, genero-berdintasuna eta erabateko demokrazia lortzeko ere.

Pertsona guztiak giza duintasunean bizitzen laguntzea gure esku dago. Hortxe dago, hain zuzen, tokiko ekintzaren ondorio globala: gutako bakoitzak, egunero, Euskadiko eta pobretutako herrialdeetako milioika pertsonaren errealitatea aldatzeko egin dezakegun horretan. Nazio Batuek 2015ean onartutako Garapenaren agenda berriak, hain zuzen, aipatzen du denok dugula ardura munduko arazoak konpontzeko, denonak baitira eta elkarri lotuta baitaude, baina bereziak, hain zuzen ere. ◀

Ana María Arriola
Euskadiko Garapenerako GKEen
Koordinakundeko presidentea



COORDINAKUNDEAREN **YouTube**-KO KANALEAN
ERAKUNDEAK 2015EAN EGINIKO LANA
LABURBILTZEN DUEN BIDEOA IKUS DEZAKEZU

2. Nortzuk gara?



Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko eta horrek berekin dakar elkarren artean hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea. Hasiaran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2015aren amaieran 82 GGKE ditu eta 140 egoitza baino gehiago Euskadiko lurraldeetan.

MISIOA

Koordinakundea garapen lanetan diharduten GKEez osaturiko kolektibo bat da. GGKE hauek Jokabide Kode amankomun bati atxikitzea erabaki dute eta horrela egitura antolatu bat osatu dute lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetan lan egiteko, genero ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkorraren paradigmatari jarraituz. Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- ▶ Kalitatezko garapenerako lankidetzaren sustatzea, eskualde erakunde publiko zein pribatuen artean eta Koordinakundeko kide diren erakundearen artean.
- ▶ Koordinakundeko kide diren erakundearen prozesuei laguntzea, dauzkaten gaitasun politiko zein teknikoak indartuz.
- ▶ Gure inguruneke eraldaketa soziala bultzatzea, heurraren artean elkartasunaren kultura sustatuz,



desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziarekin eta Iparra-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.

Hori guztia aurrera eraman nahian, Koordinakundearen topaketa, eztabaida eta gogoeta espazioak eskaintzen ditugu kide diren erakundeek irizpide komunak sor ditzaten. Eragina izaten ahalegintzen gara sozialki eta politikoki, aliantzak egiten ditugu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko esanguratsua izaten saiatzen gara. Horrekin batera, erakundeei laguntzen diegu beren lanean, dauzkaten gaitasunak indartzen ditugu, beren arteko aliantzak bideratzen ditugu eta kolektiboaren esku jartzen ditugu kide bakoitzak dauzkan baliabideak eta alderantziz.

BALOREAK

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundearen lana eraldaketa sozialaren esparruan kokatzen da, desberdintasunak gaindituz eta mundu justuago baten alde borroka eginez. Mundu osoko beste hainbat talde sozialek bezala, geurea egin dugu *Beste mundu bat posible da* leloa. Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzak oinarritat dauzka elkartasuna, desinteresa eta dohaintasuna; garapenerako lankidetzak ez da transferentzia ekonomiko hutsa, herri pobretuekin lan egiten da giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzeko, hezkuntza lortzeko eta herritarrek sentsibilizatzeko eta ohartarazteko badirela hori guztia eragoz-

ten duten hainbat mekanismo. Koordinakundeak, halaber, kide diren erakundeek ekintzak zuzentzen dituzten baloreak islatzen ditu. Garrantzi berezia ematen diogu demokrazia parte-hartzailea, independentzia, gaitasuna, koherentzia eta genero ekitatea lantzeari.

LAN ILDOAK

Hauek dira GGKE kideek Koordinakundearentzat finkatu dituzten lehentasuneko lan ildoak:

- ▶ Eragin politikoa, salaketa eta mobilizazio soziala, genero berdintasuna kontuan hartuta.
- ▶ Koordinakundeko erakunde kideen eraldaketa sozialerako gaitasuna indartzea.

Horretarako, erlazionaturik dauden bost helburu nagusi definitu ditugu:

- ▶ Eragina izatea lankidetzak politiketan.
- ▶ Legeriaren betepena eta politiken koherentzia zaintzea.
- ▶ Kritikoki eta proposamen modura zabaltzea Ipar-Hegoko desberdintasunen eta gure gizarteko aberastasunaren banaketa desberdinaren kausak eta ondorioak.
- ▶ Aliantzak sustatzea mugimendu sozialekin, mobilizazioaren oinarri soziala zabaltzeko eta alternatiba pluralak eraikitzeko.
- ▶ Kide diren erakundeek gaitasunak hobetzea, beren helburuak koordinatuki, eraginkortasunez, efizienteki eta koherentziaz lor ditzaten.

BARNE ANTOLAKETA

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundearen organo garrantzitsuena Batzar Nagusia da, zeina aldiaren behin elkartzen baita urte bakoitzerako oinarrizko irizpide eta lanildoak ezartzeko. Batzar Nagusian aukeratzen dira Koordinakundearen kasuan kasuko instantzietan ordezkatzeko duten karguak.

Batzar Nagusia urtean gutxienez behin biltzen denez, Gobernu Batzordea Koordinakundearen organo exekutiboa da. Batzorde horrek programatzen eta zuzentzen ditu Koordinakundearen jarduerak, Batzar Nagusiak eta plan estrategikoak zehaztutakoaren arabera. Lurralde Batzarrak, Koordinakundearen ordezkariak horretan elkartutako GGKEek osatzen dituztenak, lurralde ordezkariak gobernuko organoak dira. Gainera, lurralde bakoitzean lantaldeak oinarri hartuta egiten da lan. Onginahi hutsez lan egiten duten hainbat GGKEetako kideek osatzen dituzte eta talde txikiak izaten dira. Une honetan eragin sozial eta politikoa, generoa, komunikazioa, garapenerako hezkuntzaren... arloetan lan egiten dute.

Koordinakundeak hiru ordezkariak ditu, bat lurralde bakoitzeko. Lantalde Teknikoaren laguntzaz gauzatzen dira Batzar Nagusietan, Lurralde Batzarretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakiak. Gainera, etengabe eskaintzen zaie informazioa eta aholkularitza GGKE kideei eta orientazioa ematen zaie informazio edo laguntza bila Koordinakundera jotzen duten gutzietan.

2001az geroztik, Espainiako GGKEen Koordinakundearen barruan gaude. 2009an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak Euskadiko GGKEen Koordinakundeari eman zion Ignacio Ellacuria saria garapenerako lankidetzaren esparruan egindako ibilbideagatik. Hogei urteko lanagatik eta garapenerarekin zein aldaketa sozialarekin hartutako konpromisoagatik emandako esker ona izan zen hau. ◀



3. Gure jarduerak



Euskadi

ERAGIN SOZIALA ETA POLITIKOA

Erakundeekin izan ditugun harremanen xede nagusia izan da Euskadiko lankidetzaren politikaren balioa nabarmentzea, gizarte-politiken parte baitira, eta, ondorioz, gizartearen ongizatea eta kohesioa bermatzen laguntzen baitute. Lan hori, kasu batzuetan salbu, erakundeetan murrizketak egiten zituzten bitartean egin behar izan dugu:

- ▶ Lankidetzaren politikak gauzatzeaz arduratzen diren pertsonekin harreman egonkorrak izan ditugu, bai eta Euskadin ordezkariak dituzten alderdi politiko nagusiekin ere. Horri esker, presentzia aktiboa izan dugu erakundeen espazioetan. Nabarmentzekoak dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, hiru Foru Aldundietako lankidetzaren sailletako arduradunekin, hiru hiriburu eta Udalekin (baita lurraldeko zenbait udalerriekin ere) eta Eusko Legebiltzarreko oposizioko zein gainerako erakundeetako talde politikoekin izandako bilerak.
- ▶ Ordezkaritza aktiboa eta egonkorra izan dugu elkarriketarako eta parte-hartzerako hainbat espaziotan, besteak beste Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza Kontseiluan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan eta Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Lankidetzarako Udal Kontseiluetan.

Horien agenden jarraipena egin dugu eta kide diren GGKE guztion artean adostutako jarrerak, proposamenak eta ekarpenak aurkeztu ditugu hainbat gai dagokionez.

- ▶ Lankidetzaren arloan indarrean dauden legeak, euskal erakunde publiko nagusien aurrekontuak eta horien exekuzio-maila zenbateraino bete diren aztertu dugu.
- ▶ Erakundeei 2015. urterako lankidetzarako aurrekontu bat proposatu diegu, gauzaturiko aurrekontu osoaren % 0,7a lankidetzara bideratzeko konpromisoa gogoan izanda. Eskaera hori lehenengo urratsa da Nazio Batuek 1970. urtean hartutako nazioarteko konpromisoa, hau da, barne produktu gordinaren % 0,7 garapenerako lankidetzara bideratzeko konpromisoa, erdiesteko bidean. Horrez gain, urrats hori ezinbestekoa da tokian tokiko zuzendaritza-planetan, pobreziaren aurkako itunetan eta 2007ko Lankidetzarako Euskal Legean islatutako konpromisoak betetzeko.
- ▶ Euskal erakunde nagusiek Garapenerako Laguntza Ofizialerako bideratu beharreko ehunekoak kalkulatzeko sistema homogeneo bat sortzeari buruzko eztabaidari gure ekarpena egiten jarraitu dugu. Hau da gure eronka: malgutasunik galdu gabe urratsak ematen jarraitzea barne produktu gordinaren % 0,7ra heltzeko, nazioartean adostutakoa betetzeko.

Euskal lankidetzara publikoaren azterketa 2011-2014: lankidetzara deszentralizatuari begirada bat ikerketa argitaratu dugu. Lan horren helburua da datu eguneratuak izatea lankidetzaren arloko politiken kopuruari eta kalitateari buruz, bai eta urteetan zehar izan duten bilakaerari buruz ere. Sektorean gardentasunez jokatzeko saiakera bat da, lankidetzaren alorra hobeto ezagutzeko sustatzen du eta lankidetzaren kalitateari, koordinazioari eta osagarritasunari buruz hausnartu nahi du; hala, erabilgarria da GGKEentzat, erakunde publikoentzat eta herritarrentzat. Horrez gain, hainbat proposamen egiten dira euskal gizarteak erreferente

rente izaten jarrai dezan elkartasunaren eta lankidetzaren arloan:

- ▶ Koordinakundearentzat interesgarriak diren hainbat hartzaileri aurkeztu zaie azterketa hori, besteak beste, hauei: kide diren GGKEak, erakunde publikoak eta abar. Horrez gain, abenduaren 16an komunikabideei aurkeztu genien Donostian egin zen informazio-gosari batean, ondorioen berri izan zezaten eta ondorio horiek gizartean zabal zitzaten.

Horrez gain, gure jarrera finkatu dugu Garapenerako agenda berriari, Garapen Iraunkorrerako Helburuei eta haien aplikazioari, eta euskal lankidetzara deszentralizatuaren ondorioei dagokienez. ◀



EUSKADIKO ERKUNDE NAGUSIEN AURREKORTUEN EHUNEKUAK

Erakundeak	2010	2011	2012	2013	2014	2015
EHK	102,45	102,55	102,64	102,73	102,84	102,93
EHK2	102,49	102,59	102,67	102,76	102,85	102,94
EHK3	102,43	102,53	102,62	102,71	102,80	102,89
EHK4	102,47	102,57	102,66	102,75	102,84	102,93
EHK5	102,41	102,51	102,60	102,69	102,78	102,87
EHK6	102,45	102,55	102,64	102,73	102,82	102,91
EHK7	102,49	102,59	102,68	102,77	102,86	102,95
EHK8	102,43	102,53	102,62	102,71	102,80	102,89
EHK9	102,47	102,57	102,66	102,75	102,84	102,93
EHK10	102,41	102,51	102,60	102,69	102,78	102,87

LANKIDETZA ERALDAKETARAKO

Euskal herritarrei erakusteko euskal lankidetzari egiten dioten ekarpenak milaka pertsonaren bizia hobetzen duela, egungo krisi-testuinguruan lankidetzarako beharraren inguruko kontzientzia sortzeko eta, laburbilduz, lankidetzak politika publiko gisa duen balioa azpimarratzeko, honako ekintza hauek gauzatu ditugu:

- ▶ Mantendu egin dugu *Lankidetzaren Eraldaketarako Solasaldiak* ikus-entzunezko kanpaina; bertan, euskal gizartean ezagunak diren hainbat pertsonak aldi baterako Euskadin dauden eta lankidetzaren arloan jarduten duten Hegoaldeko pertsonekin hitz egiten dute. Besteak beste, hauek hartu dute parte: Xabier Euzkitze bertsolari, komunikatzaile eta Saharautz Elkartasun Taldeko presidentea; Claudia Samayoa Guatemalako giza eskubideen defendatzaile eta UDEFEGUA elkartearen koordinatzaileak; Edurne Pasaban mendizale eta *Montañeros para el Himalaya* taldearen sortzaileak; eta Morena Herrera Salvadorreko giza eskubideen defendatzaile eta feministak.
- ▶ Azaroan, Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietan eta abenduan, Donostian, Deustuko Unibertsitatearen campusean, *Lankidetzaren Eraldaketarako* argazki-erakusketa jarri dugu. Erakusketa horrek Hegoaldeko hainbat herrialdetako 8 pertsonaren lekukotzak biltzen ditu; lekukoek, hain zuzen ere, euskal nazioarteko lankidetzaren bitartez haien herrialdeetan giza eskubideen arloan lortu dituzten aurrerapausoak azaltzen dituzte.
- ▶ Abenduaren 3an, antzerkia baliatuz kaleko ekintza bat egin dugu Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean: *ParlaMIENTO: promesas incumplidas en cooperación. Murrizketarik ez*. Horren helburua izan da sektorearen ezinegon sakona argitara ateratzea euskal gobernuak ez duelako garapenerako lankidetzaren arloa errespetatzen eta behin eta berriz hautsi dituelako ganbera horren aurrean garapenerako lankidetzaren arloan hartu zituen konpromisoak.



WEBGUNEAN EDO GURE **YouTube**KO KANALEAN IKUS DITZAKEZU
IKUS-ENTZUNEZKO KANPAINA HORI OSATZEN DUTEN BIDEOAK.
ERAKUSKETA **WEBGUNEAN** IKUSGAI DAGO



FORU- ETA UDAL-HAUTESKUNDEAK

Hauteskundeen harira, gizartean eta politikan eragiteko estrategia bat gauzatu dugu; estrategia hori hainbat esparrutako ekintza koordinatuek osatu dute, eta haien helburua izan da alderdi politikoak bultzatzea lankidetzaren arloko konpromiso argiak har ditzaten:

- ▶ Horretarako, aurrez aurreko bilerak egin ditugu eta *Euskaditik mundura: 7 konpromiso garapenerako lankidetzaren politika hobetzeko* agiria aurkeztu diegu hauteskundeetan parte hartu duten alderdi politiko guztiei. Alderdi politiko batzuek bere egin dituzte konpromiso horiek, neurri handiagoan edo txikiagoan.
- ▶ *Txaloka Antzerki* taldeak kaleko ekintza bat egin du maiatzaren 7an, Gasteizen, hori baita azken urteotan lankidetzaren arloan murrizketarik handiena zuten lurraldea. Gong erraldoi baten erritmoan egin dira aldarrikapenak, eta herritarrei eskatu zaizkie politikariei esparru horretan hartutako konpromisoak bete ditzaten eskatzeko; horrez gain, arlo horretako murrizketek izandako ondorio latzak argitara atera dira.
- ▶ Sare sozialetan ekintzak martxan jarri dira hautagaiei eta haien alderdi politikoei eskatzeko bat egin dezatela aipatutako konpromisoekin, bai eta gai horri buruzko sareko eztabaidentan hautagaiei zer galdera egin proposatzeko ere. Horrez gain, komunikabideen bitartez eskaera horiek herritarrei jakinarazi dizkiegu, botoa emateko unean Euskadin lankidetzaren arloko politiken egoera zein den behar bezala ezagutu dezaten.
- ▶ Elkarrekin modu koordinatuan lan egin ondoren, apirilaren 21ean, Ekain -Euskadiko Gizarteratzearen Aldeko Sareak- (gu ere bertako kide gara) *15 proposamen tokiko politika inklusiboak bultzatzeko* agiria aurkeztu du Gasteizen; bertan, hauteskundeen testuinguruan alderdi politikoei zuzenduriko hainbat aldarrikapen biltzen dira. ◀

GENEROA, FORMAKUNTZA ETA IKERKETA


Generoa

Gure ekintzen xede nagusia da Koordinakundearen genero-ikuspegia esparru guztietan txertatuta dagoela bermatzea, gure genero-politikari jarraikiz. Helburu hori erdiesteko erakunde publikoekin lanean jarduten dugu eta GGKEei eta beste gizarte-eragile batzuei babesa eta prestakuntza eskaintzen diegu genero-berdintasunaren arloan. Besteak beste, hau egin dugu:

- ▶ Lantalde bakoitzean genero-ikuspegia txertatzeko lotura-mekanismoaren diseinuan aurrerapenak egin ditugu, erakundearen espazio guztietan pertsona bat egon dadin dinamikek, agiriekin eta jarduerak genero-berdintasuna errespetatzen dutela bermatzeko.
- ▶ Irailaren 9an, Bilbon, antolakuntzaren kulturaren arloan emandako urratsei buruzko esperientziak trukatzeko gune bat antolatu dugu. Topaketa hori Generoa taldeak dinamizatu du, eta hartzaileak duela urte batzuk gure erakundeak sustatutako antolakuntza-aldaketaren prozesuan edo Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziaren berdintasunaren aldeko prozesuan parte hartu duten Koordinakunde-kide diren GGKEak izan dira.
- ▶ Helburua genero-ikuspegia duten eta ikuspegi hori antolakuntza-lan osoan zeharka txertatzen zela bermatuko zuten aurrekontu batzuk egitea da. Lan horren konplexutasunaz jakitun, aurrekontu horiek nola egin jakiteko informazioa biltzen hasi gara. Horrez gain, erakundeak 2014an exekutututako aurrekontuaren azterketa ere egin dugu, genero-ikuspegitik aztertzeke jarraibideak lortzeko eta abiapuntu bat eraikitzeko. Laster, adituen laguntzarekin, pro-

posamen zehatzak formulatuko ditugu aipatutako helburura hurbiltzeko.

- ▶ Generoa eta politiken koherentzia lotuko dituen ikerketa bat egiteko gaiak identifikatu ditu Generoa taldeak. Zehazki, gizartea eraldatzeko hezkuntzaren arloko genero-konpromisoen eta Euskadiko hezkuntza formalaren arloko politikan generoak duen zeharrikotasunaren arteko koherentzia analizatzeko lanean ari dira.
- ▶ Talde honek etengabe egin du lan genero-ikuspegia Koordinakundearen agiri guztietan, erakunde publikoetara egindako ekarpenetan, komunikazio-ekintza guztietan, kide garen sare feministetan izandako parte-hartze aktiboan, GGKEei genero-berdintasunaren arloan laguntzean eta abarretan txertatzen dela bermatzeko.



Formakuntza

GGKEen, administrazio publikoen eta lankidetzaren arloko beste eragile batzuen prestakuntza-eskaintza aztertu ondoren, honako ekimen hauek sustatu ditugu haien lana eta eragina indartzeko:

- ▶ Otsailaren 23an, Bilbon, Hirugarren Sektorearen Behatokiarekin batera *Gardentasun legea hemen da: gobernuz kanpoko erakundeok prest al gaude?* ikastaroa antolatu dugu. Ikastaroa Pau Vidalek zuzendu du, eta xede izan duen lege horrek ezartzen dituen betebeharrak azaltzea, legera nola egokitu ikastea eta gardentasunaren kulturak gure erakundeetan zer toki duen ikustea.
- ▶ Apirilaren 29an, Bilbon, *Ezagutzak handituz: TTIP, arriskuak eta mehatxuak* prestakuntza antolatu dugu. Ikastaroa Euskal Herriak TTIPari Ez plataformak zuzendu du (gu bertako kide gara). Ikastaroaren helburua izan da Ameriketako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko itun hori aztertzea eta izango dituen ondorioak ezagutzeko. Geroago, irailaren 15ean, saio hori bera Gasteizen egin da.
- ▶ Urriaren 21ean, Bilbon, *Crowdfundinga, lankidetzarako tresna* informazio-saioa antolatu dugu. Irakaslea Xosé Ramil izan da, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Garapenerako Teknologia-ren Berrikuntza Zentroko kidea, eta beste bi GGKE kidek ere parte hartu dute. Saioaren helburua izan da *crowdfunding* ekimenak nola abiatu ikastea, proiektu sozialak (sentsibilizazio-proiektuak, garapenerako lankidetzaren arloko proiektuak eta beste batzuk) babesteko funtsak bildu ahal izateko. Prestakuntza hori bera eskaini da, baina beste formatu batean, azaroaren 24an, Donostian, Gipuzkoako Lurralde Batzarraren harira.
- ▶ Europako Garapen Urtearen eta Beijingeko Ekintza Plataformaren 20. urteurrenaren harira, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundearen Generoa taldeak bat egin du Nazio Batuek abiatutako *16 aktibismo egun genero-indarkeriaren kontra* kanpainarekin. Hau azaroaren 25etik abenduaren 10era egin da, eta helburu izan duen emakumeen aurkako indarkeriaren kausak eta ondorioak salatzea. Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kideok kanpaina horretan parte hartu dugu eta Mugarik Gabe elkarteak



abenduaren 2an Gasteizen antolatu duen *Indarkeria matxisten begirada interseksionala* jardunaldirako formakuntza babestu dugu.

- ▶ Abenduaren 3an, Bilbon, *Garapen Iraunkorrerako Helburu berriak: Euskadiko Garapenaren eta Lankidetzaren Agendan izan ditzaketen eraginak* jardunaldiak antolatu ditugu Hegoa elkartearekin, UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoarekin, 2015 y más Plataformarekin eta talde gehiagorekin. Jardunaldi horretan hainbat erakundek hitzaldiak eman dituzte, eta helburua izan da herritarrek agenda hori bere egiteko prozesua aztertzea, sakontzea, ezagutaraztea eta aurrerapausoak ematea.
- ▶ Urtarrilaren 14an, Gasteizen, *Taldeak kudeaketa ez patriarkalari buruzko prozesuaren azken saioa* egin da, eta María Viaderok (Mugarik Gabe) zuzendu zuen.
- ▶ Otsailaren 11an, Donostian, José Ramón Mariñok, ATTACEko kideak Merkataritza eta Inbertsioen Itun Transatlantikoa -TTIP-ari buruzko prestakuntza-saio bat eskaini du; saioaren helburua izan da gai hori sakonago aztertzea. Halaber, gai hori izango zen Pobreziaren aurkako Asteko gai nagusia.
- ▶ Abenduaren 14an, Donostian, sare sozialen erabilerari buruzko prestakuntza-saio bat egin da, eta Donostiako Pobrezia Zero Plataformako kideei zein bertaratu ziren gainerako pertsoneri tresna hori nola erabili irakatsi zaie.

Horrez gain, Koordinakundeak kanpoko beste prestakuntza-saio batzuetan ere parte hartu du, hizlari gisa; hona hemen zenbait:

- ▶ Generoari eta garapenari dagokionez, martxoaren 10ean Unesco Etxeak Basaurin antolatu duen *Milurtekoko Garapen Helburuetatik 2015 osteko agenda berrira* ikastaroaren saio batean parte hartu dugu.

- ▶ Martxoan bi hitzaldi eman ditugu UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitatean generoari eta garapenari buruz.
- ▶ Maiatzean, generoari eta garapenari buruzko saio bat antolatu dugu Barrian, *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programarako hautatutako pertsonekin.
- ▶ Otsailaren 6an, nazioarteko lankidetzari buruzko sarrer-saio bat eskaini dugu Donostian, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza elkarteak antolatutako *Lankidetzaren eta Garapen Iraunkorrari hastapenak* ikastaroaren baitan.
- ▶ Martxoaren 10ean, GGKEek garapen-prozesuetan duten rola zein den azaldu dugu Donostiako Irakasle Eskolan egin den ikastaro batean. Ikastaroaren hartzaileak praktikak herrialde pobretuetan egingo dituzten ikasleak izan dira.
- ▶ Apirilaren 29an, Bakea eta Duintasuna elkarteak zuzendutako *Komunikari* prozesuan parte hartzeari ekin diogu; ekimen horren helburua da lankidetzaren arloko hainbat eragilek, Koordinakundeak barne, komunikazio-estrategia baten diseinuan parte hartzea, gizarte eraldatzeko prozesuen balioa azpimarratzeko.
- ▶ Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza taldea osatzen duen talde batek ekonomia sozial, solidario eta alternatiboari buruzko graduondoko batean parte hartzeko gonbidapena egin digu; hala, uztailaren 3an, Eibarren egin den Udako Euskal Unibertsitatean, unibertsitateak bere konpromiso sozialak erdietsi ahal izateko estrategia eraldatzaile bat ezartzeko prozesua azaldu dugu.
- ▶ Gaztela eta Leoneko Garapenerako GKEen Koordinakundeak gonbidatuta, apirilaren 18an Burgosen egin den eragin politikoari buruzko hitzaldi-tailer batean parte hartu dugu, hizlari gisa.



Ikerketa

Sektoreari loturiko hainbat gairi buruzko ikerketak sustatu eta gauzatu ditugu, sektorea indartzeko eta hobetzen laguntzeko. Hona hemen batzuk:

- ▶ Garapenerako lankidetzak izan duen testuingurua dela eta, kide diren GGKEei urteroko inkesta egin diegu, erakundeek jasotzen dituzten funtsetan izandako murrizketek garapenerako lankidetzaren, garapenerako hezkuntzaren, erakundeen antolakuntza-egituraren eta etorkizunerako planen arloan izan dituzten ondorioei buruzko datu zehatzak izateko. Aurreko edizioetan (2010-2013) jasotako datuei 2014ko datuak gehitu dizkiegu; horri esker, sektorearen egoera aztertu ahal izan dugu eta *Krisiaren eraginaren ondorioak euskal lankidetzan 2014an* txostena argitaratu ahal izan dugu. Txostena hainbat interes-talderi aurkeztu diegu, esaterako, hauei: kide diren GGKEak, erakunde publikoak eta abar. Horrez gain, uztailean 28an komunikabideei aurkeztu diegu Bilbon egin den informazio-gosari batean, ondorioen berri izan dezaten eta ondorio horiek gizartean zabal ditzaten.
- ▶ Horrez gain, Koordinakundeak duela urte batzuk hasi zuten *Urrats bat gehiago* hausnarketa-prozesuak aurrera jarraitu du. Lehenetsuna duten ildoak zehaztu ondoren, hainbat lan-saio egin ditugu kide diren GGKEekin. Ekainaren 3an Donostian egin den saioak garapenerako lankidetzak duen testuinguru berriari buruzko hausnarketa izan du ardatz; horretarako, Nacho Martínezek (2015 y más Plataformako kidea) hasierako hitzaldi motibagarria egin du testuingurua azaltzeko. Urriaren 1ean, berri, lankidetzaren ikuspuntuei buruz eztabaidatu dugu Bilbon. Azaroaren 11an, Donostian, lankidetzaren arloko eragile berriei buruz hitz egin dugu. Abenduaren 15ean, Gasteizen, testuinguru berriaren aurrean gure ustez sektoreak bere egin behar dituen kudeaketa-tresna eta -eredu

berriei buruz jardun gara. Saioen informazio guztia bildu dugu eta Koordinakundearen jarrerak biltzen dituen hitzaldi bat prestatu dugu. Hori 2016ko Biltzar Orokorrera eraman dugu bertan bozkatzeko. Bozketaren ondoren, hausnarketa-prozesua bukatutzat joko dugu. ◀




POBREZIAREN AURKAKO ASTEA

Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta, Zero Pobrezia kanpainaren harira, pobrezia eragiten duten kausak salatu ditugu. Beste behin ere, hainbat kolektibok bat egin dugu hitzordu horrekin. Horretarako, *TTIP: saria edo ziria* lelopean, Merkataritza eta Inbertsioen Itun Transatlantikoa (TTIP) hautatu dugu Euskadiko jardueren ardatz nagusi gisa.

Plataforma eta lurralde bakoitzak modu independentean definitu ditu jarduerak, baina koordinazioa globala izan da. Zero Pobrezia kanpainaren 10. urteurrena ospatzeko, urte horietan zehar politikariei eta herritarrei helarazi dizkiegun salaketak eta aldarrikapenak biltzen dituzten kartel guztiak bildu ditugu eta erakusketa bat antolatu dugu haiekin. Hedapena elkarrekin eta modu koordinatuan egin dugu; horretarako, prentsaurreko bat deitu da Donostian, urriaren 13rako. Ekitaldi horren bitartez, hiru lurraldeetako programazioa eta aldarrikapenak ezagutarazi ditugu eta herritarrei parte hartzeko eta mobilizatzeko gonbidapena egin diegu.

- ▶ Araban, *TTIP: saria edo ziria* ekimena urriaren 15ean egin da Gasteizen. Egun horretan mahai-inguru bat egin da TTIPak eta antzeko nazioarteko itunek hainbat alorretan dituzten ondorioak ezagutarazteko. Hainbat elkartetan hartu dute parte, besteak beste hauek: Mugarik Gabe (Jesús González), Fracking Ez (Mikel Otero), ELA (Laura González de Txabari) eta Askapena (Guillermo Paniagua). Horrez gain, bizimartxa aldarrikatzaile bat antolatu da Gasteizen, urriaren 17an. Bestalde, hainbat eskolatan (Gasteiz, Laudio, Amurrio -eta Iurreta, Bizkaian-) tailerrak egin ditugu eta Laudioko Azoka Solidarioaren IX. edizioa antolatzen lagundu dugu.



- Bizkaiko jarduerak REAS -Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea- elkartearekin elkarlanean antolatu ditugu. Urriaren 14an, Bilbon, *TTIP: saria edo ziria* lemapean, mahai-inguru bat egin da TTIPak eta antzeko nazioarteko itunek Iparraldeko eta Hegoaldeko biztanleengan dituzten ondorioei buruz hitz egiteko, honako hiru arlo hauetan: osasuna, lan-eskubideak eta elikadura-burujabetza. Hauek parte hartu dute, besteak beste: América Arias, osasun globalaren eta garapenaren arloko proiektuen kudeatzailea; Andoni García, EHNE sindikatuko kidea; eta Beatriz Plaza, OMALEko (Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia) kidea. Begoña Yebra kazetaria aritu da moderatzaile. Horrez gain, urriaren 17an, Bilbon, bizi-martxa aldarrikatzailea antolatu da. Martxaren amaieran, *Jamming* bat-bateko antzerki taldeak emanaldia eskaini du eta Zero Pobreziaren *photocall* bat ere egon da, parte-hartzaileek argazki dibertigarriak ateratzeko.
- Gipuzkoan, jarduerak Zero Pobreziaren 5 plataformen bitartez (Eibar, Debagoiena, Bidasoa, Donostia eta Zarauzko elkartasun-taldea) antolatu dira. Donostian, urriaren 18an, bizi-martxa aldarrikatzailea egin da. *Oihulari clown* taldeak animatu du martxa. Urriaren 26an, bestalde, Donostian zine-foruma egin da *The Navigators* filmarekin. ◀



BESTE KOLEKTIBO BATZUEKIN SAREAN EGINIKO LANA

Beste sare batzuetako kide izateak ekiteko eta eragiteko gaitasun handiagoa ematen digu. Hori dela eta, gure helburu berdinak dituzten beste gizarte-mugimendu eta -eragile batzuekin aliantzak ditugu eta haiekin sarean lan egiten dugu. Besteak beste, sare hauetan egiten dugu lan:

- ▶ Hasteko, Mewando-Palestinarekiko Elkartasun Sarearekin egindako ekintza batzuk nabarmentzen ditugu. Sare horren helburua da euskal herritarrak sentsibilizatzea Palestinak bizi duen okupazioari dagokionez: Nakba eguna (maiatzak 15); Emakume Arabiarren Zinema Erakustaldia, urriaren 16an eta 17an, Donostian; *Gaur eguneko Palestinako zine eta literaturaren ikuspegia* konferentzia, uztailearen 18an, Donostian; eta *performancea* eta kontzentrazioa Harresien Kontrako Egunaren harira (azaroaren 9an Bilbon eta azaroaren 15ean Donostian). Bestalde, abenduaren 3an eta 4an *El Mundo Árabe en el siglo XXI: Palestina, Postcolonialismo y primaveras* ikastaroa antolatu da UPV/EHuko Leioako campusean. Horrez gain, Manu Pinedak, Unadikume elkarteko Gazako brigaden koordinatzaileak hitzaldi bat eman du abenduaren 14an, Donostian eta abenduaren 17an, Gasteizen. Horrez gain, kolektibo internazionalistekin eta sozialekin bilera egin du abenduaren 17an, Bilbon.
- ▶ Euskal Goi Bilera Sozialean parte hartu dugu hainbat sindikatu (CCOO, UGT eta USO) eta elkarte sozialekin (Ikasle Ekintza, *Unión Progresista de Fiscales*, ADICAE, *Jueces para la Democracia*, HOAC eta *Mesas por la Convergencia*, beste hainbaten artean) batera. Egungo errealitateari buruzko diagnostiko bat egin ondoren, plataforma honek 2015ean zenbait proposamen aurkeztu ditu azken urteotan

krisiaren aitzakiarekin ezarri dituzten egokitzapen, murrizketa eta atzerapausoen bidea eteteko.

- ▶ Aktiboki parte hartzen dugu Gune Plataforman. Plataforma horretako kideak dira ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, Hiru eta EHNE sindikatuak eta ehun kolektibo sozial baino gehiago (*SOS Racismo*, 15M, Berri-Otxoak, Aldauri, *La Posada de los Abrazos*, KEM-MOC, *Mujeres Babel* eta beste hainbat). 2015ean, proposamenak eta alternatibak zehaztu ditugu Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta garatzeko. Horretarako, biltzar irekiak egin ditugu gizarte-mugimenduekin, eta gai hauek jorratu ditugu: natura, ekonomia-eredua, demokrazia, burujabetza eta parte-hartzea, biziaren iraunkortasuna, aniztasuna eta ondasun komunak. Horrez gain, Bil-

bon *Aldaketa soziala orain, jtenemos alternativas!* lemapean antolatutako mobilizazioak ere nabarmentu behar dira.

- ▶ Euskal Herriak TTIPari Ez Plataformaren helburua da itun horren negoziazioen jarraipena egitea eta herritarrei informazioa ematea itunaren edukari eta arriskuei buruz; helburu horrekin, hainbat sentsibilizazio-hitzaldi antolatu ditugu. Nabarmentzekoak dira Euskal Herriko hainbat hiritan, baita Bilbon ere, apirilaren 18an (Merkataritza eta Inbertsio Itunaren aurkako Ekintza Egun Globala), egindako mobilizazioak. Urriaren 10ean kaleko aldarrikapen-ekintza bat antolatu da Iruñean, Gasteizen, Bilbon eta Donostian; egun horretan, mosaikoak egin dituzte TTIP, CETA eta TISA itunen aurkako arbuioa adierazteko.



- ▶ Ekain -Euskadiko Gizarteratzearen Aldeko Sarean parte hartzen jarraitu dugu. Elkarte horrek Euskadin esku-hartze sozialaren, immigrazioaren eta lankidetzaren arloan jarduten duten sei sare biltzen ditu, eta helburu du gizarte inklusiboagoa sustatzea. Horretarako, ekitatean, elkartasunean eta parte-hartzean oinarritutako politikak eta balioak sustatzen ditu. Sare hori, hain zuzen ere, REAS -Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea- elkarteak, EAPN -Pobrezia eta Giza Bazterketaren Aurkako Europar Sareak-, Harresiak Apurtuz elkarteak, Gizatea elkarteak eta Hirekin elkarteak osatzen dute, baita gure Koordinakundeak berak ere.
- ▶ Bizkaiko mugimendu feminista eta GGKEak hurbiltzeko lanean jarraitzen dugu; hori dela eta, aktiboki parte hartzen dugu martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko Bizkaiko Koordinakunde feministetan (hurrenez hurren, Emakumeen Nazioarteko Eguna eta Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna). Urte honek izugarriko garrantzia izan du euskal mugimendu feministarentzat; izan ere, Emakumeen Munduko Martxa egin da (5 urtetik behin egiten da). Hala, martxoaren 8an, Emakumeen Martxa Kurdistanetik atera da, eta urriaren 17an Lisboa iritsi da. Bidean Euskal Herritik ere igaro da, irailaren 27tik urriaren 4ra, hain zuzen ere. Zehazki, Bizkaian izan da urriaren 2tik 4ra. Euskal Herriari agur esan baino lehen, dibertsioa eta aldarrikapena uztartzen dituen manifestazio jendetsua egin da urriaren 4an Bilbon.
- ▶ Gasteizko Eskubide Sozialen Aldeko plataforman parte hartzen jarraitu dugu, hura osatzen duten gainerako kolektiboekin batera. Azpimarratzekoa da plataforma horrek Gasteizen otsailaren 19an egin den gizarte-laguntzen ustezko iruzurrari buruzko ikerketaren udal-batzordean eta horren ondoren egin den kontzentrazioan parte hartu zuela, bai eta

ekainaren 10ean Gasteizen egin den prentsaurrekoan ere, eskubide sozialaren aldeko gobernu bat eskatzeko.

- ▶ Errefuxiatuei buruzko lantalde ugarian parte hartu dugu. Batetik, hainbat erakunde publikok, GKEk eta sare edo plataformak osatutako eta Eusko Jaurlaritzak dinamizatutako eremu batean. Horren xedea izan da guztion artean koordinatutako eta adostutako sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpaina baten ildo orokorrak zehaztea. Bestetik, Gasteiz Irekia ekimean parte hartu dugu. Sare solidario bat da, hainbat kolektiboz, gizarte-mugimenduz eta hiriko pertsona partikularrez osatua, eta xede du errefuxiatuak eta migratzaileak babestea. Sare hori azaroaren 6an aurkeztu da Gasteizen, antzezpen baten bidez. Horretan erakusten zen hiriak elkartasunez hartu nahi dituela gerraren, indarkeriaren, giza eskubideen urraketen eta abarren dramatik ihes egiten duten pertsona horiek. Hasieratik, herritarrentzako jarduerak prestatu ditu, hala nola hitzaldiak eta poesia-errezitaldi bat, *Aniztasunaren aldeko hitzak*. Azken hori abenduaren

15ean egin da, Gasteizko Bibat Arkeologia Museoa. Gainera, ekimen horrek, Gasteizko Arrazakeriaren aurkako Plataformarekin batera, mobilizazio bat antolatu da abenduaren 18an, lema honen pean: *Mugak apurtuz, ateak zabaltzen*. Ekimen hori Migratzaileen Nazioarteko Eguna zela eta egin zen.



- ▶ Desazkundera eta Bizitze ona taldean parte hartzen jarraitu dugu. Sare horrek gure inguruko 10 kolektibo biltzen ditu. Gainera, desazkunderaren printzipioei erantzuten dieten tokian tokiko proiektuetan lan egiten duten beste kolektibo batzuek ere parte hartzen dute bertan. Lanaren xedea dokumentu bat egitea izan da, eragin politikoa izango duen tresna bat, alegia. *Euskal Herritik kolektibotasunean erakiz: Bizi estilo jasangarrietan oinarritutako gizarte justu eta bidezko baten eraikuntzarako analisi eta aldarrikapenak* izenburupean, lan hori modu parte-hartzailean egin da, eta honako ardatz hauek landu dira, giza eskubideen ikuspegi batetik begiratuta: elikadura-burujabetasuna, energia-eredua, ekonomia birkokatzea eta zaintzak.
- ▶ SOS Arrazakeria eta medicusmundi gipuzkoa erakundeekin batera, beste gizarte-kolektibo, erakunde eta GGKE batzuen laguntzarekin, Arrazakeriaren aurkako XVIII. Martxa antolatu dugu. Martxoaren 22an egin da Donostian, etorkinen eskubideak aldarrikatzeko. Udal-hauteskundeak hurbil zeudela eta, atzerritar egoiliarrentzako boto-eskubidea aitortzeko aldarrikatu dugu, *Etxeok guztiok gara* lemapean.
- ▶ Donostiako Udalarekin eta beste kolektibo askorekin lankidetzan, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian parte hartu dugu apirilaren 17tik 24ra. Emanaldiak irauin bitartean, informazio-gune bat jarri da eta, bertan, Koordinakundeak bere argitalpenak, informazio-liburuxkak, kanpainak, materialak eta abar ezagutarazteko aukera izan du.
- ▶ Estatu-mailan, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundearen Koordinakunde Autonomikoen Taldeko kide gara; hortaz, jarraipena egiteaz gainera, Madrilén irailaren 19an egin den bileran ere izan gara. Burgosen azaroaren 27tik 29ra egindako Koordinakunde Autonomikoen urteko topaketetan

parte hartu dugu. Halaber, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundearen XXXIII. Ohiko Batzar Nagusian ere parte hartu dugu. Batzarra Madrilén egin da martxoaren 26an.

Donostiako Zero Pobrezia Plataforman parte hartzeari esker, beste jarduera batzuetan ere aritu gara lankidetzan; hauetan, besteak beste:

- ▶ Lilatoia; martxoaren 1ean Donostian egin den emakumeen lasterketa, medicusmundi gipuzkoa erakundearen eskutik. Lasterketaren gai nagusia maitasun erromantikoaren kontzeptua gainditzea izan zen, *Ez naiz laranja erdia, laranja osoa baizik* lemapean.
- ▶ Munduko Arrozak; Urgulleko Nazioarteko Topaketen baitako jarduera izan da, eta Donostian egin da ekainaren 14an. Ekimen horretan, jai eta aldarrikapenezko giroan biltzen dira hiriko erakunde ugari; haietariko asko migratzaileekin, gizarte-kolektiboekin eta abarrekin lotuta daude.
- ▶ Donostiako Aste Nagusiko *Abordaia* ekimenean parte hartu dugu; jarduera ludikoa eta jai-girokoa da, eta xedetzat izan dugu gure gaiak eta mezuak ikusgarri bihurtzea.
- ▶ Apirilaren 17an, Urgulleko Guardetxan, mahai-inguru bat antolatu da TTIPi buruz. Topaketa horretan, hainbat erakundek, bakoitzak bere arlotik, itunari buruz dugun ikuspegia azaltzen ahalegindu gara eta itunak gure arloetan izan ditzakeen ondorioak landu ditugu.

Bestalde, kide diren GGKEek proposatutako manifestu, kanpaina edo ekimen hauei atxiki gatzazkie:

- ▶ Gora Gasteiz herri-ekimena kolektibo, gizarte-mugimendu eta pertsona partikular ugari osatzen

dute, hiriko pertsona guztien artean aniztasunari, askotariko kulturei eta bizikidetzari balioa emateko, ezberdintasuna bertute gisa ikusiz, eta ez arazo gisa. 2015ean aurkako noranzkoan jaurtitzen diren mezuei aurre egitea zuen xede. Horretarako, hainbat jarduera antolatu dira: hitzaldiak, mahai-inguruak, bertso-saioak, ipuin-kontaktak, mobilizazioak, bizi-martxak... Jarduera nagusia Gasteizen egin da apirilaren 18an, eta, besteak beste, kontzertuak, tailerrak, emanaldiak, espazio asoziatibo bat eta manifestu baten irakurketa masibo bat egin dira. Udal- eta foru-hauteskundeen ondoren, Gora Gasteiz ekimenak prentsurreko bat antolatu du ekainaren 5ean Gasteizen, politiken erdigunean pertsonak eta gizarte-eskubideak izango dituen tokiko gobernu baten osaera eskatzeko.





- ▶ Alternatiben Herria jardunaldia egin da urriaren 24an Bilbon, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak sustatuta. Gure inguruan gorpuzten ari diren alternatibak eta proiektuak ezagutaraztea izan du xede, eta, hartara, informazioa eta ideiak partekatzea, gogoetarako aukera eskaintzea, eta, azken finean, konplizitateak eta aliantzak ehuntzea. Esperientziak ezagutarazteko eta partekatzeko espazioak antolatu dira: mahai-inguruak, tailerrak, dokumentalak, azoka, kaleko animazioa, jolasak...
- ▶ Emakumeen erabakitzeko eskubidearen aldeko kanpaina: #Todas somosnosotras.
- ▶ Indarkeria matxisten aurkako manifestuak: *Emakume ugari borrokalari* eta *Indarkeria matxisten kontrako estatuko martxa*.

Azkenik, kide diren GGKEei lagundu diegu Koordinakundeak berak bere gain hartutako kanpainak hedatzen; esaterako, Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina eta Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna. ◀



KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa giza eskubide bat da, helburu bat bere horretan, eta pertsonen eta herrien garapena bermatzen du. Gizartea aldatzeko funtsezko motorra da. Gure lana gizartea eraldatzeko komunikazioaren ikuspegitik gauzatzen dugu, bidegabekeriak salatuz eta pobrezia eta Iparraldearen eta Hegoaldearen artean ezberdintasunak eragiten dituzten kausak ezagutaraziz. Herritarrengan elkartasun-kultura bat sustatzea eta gizartea aldatzea lortzea dugu jomuga. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da komunikabideen eta kazetarien parte-hartze aktiboa izatea. Hauek dira antolatutako zenbait ekimen:

- ▶ Zenbait euskal erakunde publikok lankidetzaren sektorean egindako murrizketak salatu ditugu, Euskadin lankidetzako politika publikoei balioa eman diegu eta pobrezia eta ezberdintasunak sortzen dituzten eragileak eta bidegabekeriak salatu ditugu. Horretarako, hainbat ekintza egin ditugu (prentsa-oharrak, komunikabideentzako deialdiak, kaleko ekintzak, prentsaurrekoak, komunikabideetan iritziak sortzen dituztenekin harremanak...), eta prentsan askotan agertu gara, elkarrizketak egin ditugu eta eragina izan dugu.
- ▶ Honako iritzi-artikulu hauek argitaratu ditugu: *Eskubide eta pribilegioen arteko marra estua; Zero tolerantzia?; Tokiko botoaren eragin globala; TTIP: saria edo ziria; Garapenaren erronka berriak; eta Hitzaren balioa.*
- ▶ Aldian-aldean kolaborazioak egiten ditugu Radio Euskadiko *La Galería* eta *Bostekoa* programetan, elkarrizketetan parte hartuz edo sektorerako gai interesgarriak proposatuz nahiz kide diren GGKEei irratian lekua eskainiz.
- ▶ Hegoaldeko pertsonen hainbat lekukotzaren berri eman dugu komunikabideetan; lekukotza horien bitartez azaldu dute lankidetzako politikek zer neurritan ematen dieten aukera giza eskubideak defendatzeko...



- ▶ Komunikabideei aukera eman diegu kooperante gisa Hegoaldean lanean ari diren Euskadiko GGKEetako pertsoneri elkarrizketa egiteko, lehen eskutik kontaktu diezaieten han garatzen ari diren lana.
- ▶ Online argazki-artxibo bat eskaini dugu, euskal GGKEek Hegoaldeko hainbat eremutan gauzatzen duten lana erakusten duten argazkiez osatuta. Horren xedea da komunikabideei argazki egokiak eskaintzea kooperazioaren ikuspegitik eta *Hegoaldeari dagokionez* Irudi eta Mezuen Kodearen ikuspegitik.
- ▶ Nepal suntsitu duten lurrikaren ondoren, informazioa bildu eta hedatu dugu kide diren GGKEek egindako lanari buruz, gizartearen eta komunikabideen kontsultei erantzuteko asmoz nahiz herritarren elkartasuna bideratzeko asmoz.
- ▶ 2.0 komunikazioarekin lotutako plataformen eta sare sozialen aldeko apustua egiten jarraitu dugu, lankidetzaren arloan interesa duen komunitate digital bat sortzeko. Hain zuzen, espazio horretan gero eta pertsona gehiago daude, eta aukera berriak irekitzen dira horiekin harremanak eratzeko eta euskal GGKEek garapenerako lankidetzan eta sentsibilizazioan egiten duten lana ezagutarazteko. Facebook, Twitter, Youtube, Vimeo eta Ivoox guneeetan agertzen jarraitu dugu eta ekintza espezifikoak garatu ditugu sare sozialetan.

Web orria ia egunero eguneratu dugu eta, horren bidez, Koordinakundeak antolatutako edo babestutako jardueren edo ekimenen berri eman dugu, baita kide diren GGKEek egindakoei eta lankidetzaren, elkartasunaren eta giza eskubideen arloekin lotutako beste euskal gizarte-mugimendu batzuen ere. Web orria, era berean, topagune bat da beste eduki interesgarri batzuetarako, hala nola: lanpostuak, boluntariotzako

eskaintzak, diru-laguntza publikoen eta pribatuen deialdiak, artikulak eta loturak, jardunaldiak, kanpainak, posizionamenduak...

Astero *Munduz Mundu* informazio-buletin digitala bidali diegu harpidedunei. Buletin horrek, jardueren aste-ko agendaz gain, beste informazio interesgarri batzuk ere hartzen ditu baitan. ◀



GURE JARDUEREN BERRI
IZAN DEZAKEZU, HALABER,
SARE SOZIAL HAUEN BITARTEZ:
facebook, twitter,
YouTube, VIMEO eta IVOOX



KIDE DIREN GGKEAK INDARTZEA ETA PUBLIKOARENTZAKO ARRETA

Kide diren GGKEen lana sendotzea eta haien helburuak lortzen laguntzea izan da gure jardueren beste oinarrietako bat:


- ▶ Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua eskaini diegu erakundeei honako arlo hauetan, besteak beste: lankidetzak, diru-laguntzen deialdiak, enplegu-eskaintzak, prestakuntzak, material informatikoa edo bibliografikoa mailegatzea, genero-berdintasuna, komunikazioa, politika- eta gizarte-eragina eta administrazio-izapideak.
- ▶ Lan-poltsa kudeatu dugu, materialak eta argitalpenak banatu ditugu, dohaintzak bideratu ditugu eta lurraldeko lantalde ugari koordinatu ditugu, besteak beste.
- ▶ Arreta eta orientazioa eskaini diegu informazio edo aholkularitza bila Koordinakundera jo duten pertsona partikularrei, bereziki GGKEetako boluntariotzaren arloan edo Hegoaldeko herrialdeak bisitatzeke aukeren arloan interesa agertu dutenei.
- ▶ *Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi duzu?: nola parte hartu* txostena eguneratu dugu, GGKEetan boluntariotzan jarduteko aukerei buruzko informazioarekin. Halaber, prestakuntza-eskaintza zabala jasotzen du, baita bekak, praktikak eta programak ere arlo horretara lehen aldiz hurbildu nahi dutenentzat edo modu profesionalean sartu nahi dutenentzat.
- ▶ Informazio-bilerak izan ditugu Koordinakundearekin zein haren kide diren GGKEekin lankidetzan aritzeko nahiz parte hartzeko interesa agertu duten erakundeekin. Erakunde bat gehitu da Koordinakundera: UNRWA Euskadi.



- ▶ Lurraldeko Batzarren deialdia da Koordinakundearen ordezkartzen beste eginbeharretako bat, erakundeen lan koordinatua hobetze aldera. GGKEek partaidetza aktiboa izan dute hainbat lan-eremutan: taldeak, biltzarrak... Sei lantalde daude aktibo hiru lurraldetan urte osoan.
- ▶ Euskadin elkartasunaren eta lankidetzaren arloan interesa duten komunikabide eta kazetarien identifikazioa eguneratu dugu, kide diren GGKEei komunikabideetarako sarbidea errazteko. Berritasun gisa, GGKEentzat garrantzitsuak izan daitezkeen estatu-mailako beste espazio mediatiko interesgarri batzuk txertatu ditugu.
- ▶ GGKEei agerraldi publiko eta mediatikoetan lagungarriak izan daitezkeen argumentuak eman dizkiegu, bai eta dokumentazioa ere, GGKEek antzeko mezuak hedatu ditzaten gai jakinetan. Krisi-garaian lankidetzak defendatzeko argumentuak eta ideiak jasotzen dituz bereziki.
- ▶ Erakundeen barne-antolaketa errazteko asmoz, datu-basea eguneratu dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde publikoen, Eusko Jaurlaritzaren eta Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren garapenerako lankidetzako eta garapenerako hezkuntzako diru-laguntzen deialdiekin. Halaber, beste ekimen pribatu batzuk ere gehitu ditugu.

► Sozialki arduratsuak diren irizpideak (iraunkortasuna, gizarteratzea...) dituzten eta GGKEekin lan egiten duten enpresei buruzko informazioa jaso dugu, bai eta erakundeei abantailak, deskontuak edo ekarpen solidarioak egiten dizkieten enpresei buruzko informazioa ere, Koordinakundearen kide diren GGKEentzat lehentasunezko abantailak lortzeko asmoz.

Koordinakundeak euskararen erabilera bultzatzeko egin duen apustuari dagokionez, hiru ordezkari izan dira: *Bai Euskarari* ziurtagiria maila hauetan: *Guk zerbitzua euskaraz* Gipuzkoan, eta *Euskararen bidean* Araban eta Bizkaian. ◀



ARGITALPENAK

Ahotsa aldizkariaren 73., 74. eta 75. aleak argitaratu ditugu. Horietan, kazetaritzako hainbat formatu, ikuspegi eta kolaborazioren bitartez, elkartasunaren, lankidetzaren eta giza eskubideen arloko hainbat gai landu ditugu. Askotariko hartzaileen artean banatu da: ikastetxeak, erakundeak, liburutegiak, komunikabidea, GGKEak, beste gizarte-mugimendu batzuk, pertsona ospetsu interesgarriak...

Gainera, 2014ko Memoria eta Bideo-memoria argitaratu ditugu. Gardentasuna eta gure Jokabide Kodeak jasotzen duen kontuak ematea errazten duen tresna izateaz gain, zalantzarik gabe, funtsezko elementu bat da publiko guztiari gure lana ezagutarazteko.

GGKEen Direktorioa berriz editatu dugu; hain justu, kide diren erakundeekin harremanetan jartzeko datu nagusiak jasotzen ditu. ◀

GURE ARGITALPEN GUZTIAK [WEB](#)
[ORRIAN ESKURA DAITEZKE](#)



ZEIN DA ZEIN?

Gizarte zibilari zuzenduriko sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpaina hau sustatzen jarraitu dugu; kanpainaren helburua da modu simple eta pedagogikoan azaltzea zein diren sistema neoliberal eta patriarkalak mundu-mailan nahiz maila lokalean dituen ondorio nagusiak, bai eta sistema horren arduradun nagusiak identifikatzea eta jarduteko estrategiak gomendatzea ere.

- ▶ Ekimenaren bideo berriak argitaratu ez badugu ere, etorkizunerako edukiak lantzen jarraitu dugu eta hainbat espaziotan kanpainaren berri eman dugu, esaterako hemen: sare sozialak, kide diren GGKEak, beste kolektibo batzuk, Bilboko Zinema Ikusezinenaren Jaialdia eta abar.
- ▶ Kanpaina hori irailaren 17an Donostian egin den bertso-saioaren ardatza izan da, *Mundu zabalaren errealdetara* sentsibilizazio-jardunaldiaren baitan.



POBREZIA ETA BERDINTASUNIK EZA
NORK SORTZEN ZUEN IKUSTEKO,
QR KODE HAU ESKANEA DEZAKEZU
GAILU MUGIKOR BATEKIN,
EDO KANPAINAREN WEBGUNEAN
ERE BISA DEZAKEZU:
WWW.INICIATIVAQUIENESQUIEN.ORG.
HORREZ GAIN, SARE SOZIALEN BITARTEZ
ERE JARRAI DEZAKEZU
[#INICIATIVAQUIENESQUIEN](https://twitter.com/INICIATIVAQUIENESQUIEN)
TRAOLAREN BITARTEZ

Araba

Sareko laneko hainbat udal-espazioetan parte hartu dugu, besteak beste *Gasteizko herritarren parte hartzearen eredu berrikusteko prozesuan*. Gainera, gure egoitza Simone de Beauvoir Elkartearen etxean dago; hortaz, espazio partekatu baten parte izan gara. Horri esker, etxe horretako erabilera anitzeko gela erabiltzeko aukera eman diegu kide diren GGKEei. Bestalde, kide diren GGKEei haien materiala gordetzeko toki bat eskaintzen jarraitzen dugu, Gasteizko Udalak utzitako lonja batean.

Horrez gain, bitartekaritza-lanak egin ditugu GGKEen eta erakundeen artean, eta GGKEek parte har zezaketen jarduerak, ekimenak edo espazioak bideratu ditugu:

- ▶ Otsailean, mahai-inguru bat antolatu dugu imigrazioari buruz, Gasteizko Txagorritxu Zentro Soziokulturalean.
- ▶ Azaroan, mahai-inguru bat prestatu dugu giza eskubideei buruz, Gasteizko Paulo Freire Helduen Zentroan.

Lan nabarmena egin dugu probintziako kuadriletan GGKE ugariaren eta beren ekintzen artean elkar ezagutzea eta koordinazio-lanak egitea sustatzeko. Besteak beste, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- ▶ *Araban sarean lan egiteko dokumentua* baloratzea, birformatzea eta eguneratzea. Dokumentu horrek hainbat atal eta GGKEentzat interesgarria den informazio ugari ditu, Araban egiten duten lana bultzatzeko eta hobetzeko.
- ▶ Urriaren 23an, Laudioko IX. Azoka Solidarioan parte hartu dugu, Pobreziaren aurkako Astearen harira. Azoka antolatzeko Udalarekin lankidetzan aritzeaz


gainera, tailerrak egin ditugu Gasteizko, Laudioko eta Amurrioko (eta Iurretako -Bizkaia-) ikastetxeetan nazioarteko eta tokiko pobreziari eta berdintasunik ezari buruz. Halaber, alternatibak eta proposamenak aurkeztu ditugu egoera horiei aurrea hartzeko. Era berean, tailer horiek Zein da zein? kanpainarekin lotu ditugu, ikasleei modu erraz eta pedagogikoan helarazteko pobreziaren eta berdintasunik ezaren kausak. Gainera, Zero pobrezia kanpainak presentzia handia izan du lurraldeko beste leku batzuetan, kide diren GGKEek hainbat espazioetan izan duten parte-hartzeari esker, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunean, kasurako.



- ▶ Amurrioko Udalarekin batera, kide diren lau GGKEren erakusketa bat antolatu eta koordinatu dugu bost astez Bañueta kiroldegian, erakunde horiek egiten duten lana agerian jartzeko asmoz: *Elat Meyong: herrien arteko elkartasuna*, Manuel Iradier Elkarte Afrikanistarena; *Educación sin barreras*, Serso San Viator de EuskalHerria erakundearena; *Kaixo África*, Nazioarteko Elkartasuna erakundearena; eta *Yanacuri, urre beltza, medicusmundi* araba erakundearena.
- ▶ Kide diren GGKEen lankidetzak eskatu dugu *Musutruk* jardueran parte hartzeko. Sentsibilizazio-programa bat izan da kontsumo arduratsuari eta diruaren balioari buruz. Irailaren 19an egin da Agurainen.
- ▶ Laguntza, aholkularitza eta babesa eskaini diegu probintziako erakunde publikoetako teknikariei, hain zuzen, arlo horrekin lotutako jarduerak antolatzen dituztenei.

Eragin Soziala eta Politikoko taldeak harreman egonkorrak eta naturalak izan ditu Arabako lankidetzak egiten dituzten eragile nagusiekin:

- ▶ Bilerak egin eta harremanak izan ditugu Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariekin. Halaber, Udalean eta Foru Aldundian ordezkariak duten alderdi politikoekin ere izan ditugu harremanak eta bilerak, lankidetzak-politika garden eta deszentralizatu bat defendatzeko. Gainera, bi erakunde horien lankidetzak-politikaren exekuzioaren jarraipena egin dugu.
- ▶ Gasteizko Garapenerako Lankidetzak Kontseiluan parte hartzen jarraitu dugu. Kontseiluari jakinarazi dizkiogu kide diren GGKEek adostutako jarrerak. Gainera, Gasteizko Udalean lankidetzaren arloan murrizketa handiak egin diren honetan, presioa egin dugu kalitatezko politikak leheneratzeko eta gardentasuna lortzeko. ◀



Bizkaia


UPV/EHUrekin eta Bizkaiko Boluntariora eta Parte-harzerako Agentziarekin (Bolunta) lankidetzan aritu gara. Maiatzean, informazio-hitzaldi bat eskaini dugu Unibertsitatean udan Hegoaldera boluntario gisa joateari buruz.

Gure Bizkaiko egoitza Ganbaran (espazio asoziatiboa) dago, Boluntaren baitan. Beste gizarte-erakunde eta -elkarte batzuekin partekatutako espazio bat da, eta aukera eskaintzen digu elkarren artean erlazionatzeko eta jende gehiagorengana iristeko.

Gizarte- eta politika-eragina taldeak harreman egonkorak eta naturalak ezarri ditu Bizkaiko lankidetzako politikak eragiten dituzten eragile nagusiekin:

- ▶ Aldian-aldian, bilerak egin ditugu Bilboko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, politikaren eta lankidetzaren arloetako ordezkariak Koordinakundearen lan-ildoak aurkezteko. Gainera, Bizkaiko Batzar Nagusietako eta Bilboko Udaleko talde politikoekin ere bildu gara.
- ▶ Gure ordezkariari eutsi diogu Lankidetzaren Udal Kontseiluan eta Exekuzio Batzordean; kide diren GGKEek adostutako jarreraren berri eman dugu horietan.
- ▶ Bizkaiko Foru Aldundiak hala eskatuta, ekarpenak egin dizkiegu garapenerako lankidetzarako diru-laguntzen oinarri berriei.

Generoa lantaldeak hainbat jarduerak egin ditu barneko gure Genero Politikan aurreikusitako esku hartzeko ildoak betetzeko: Koordinakundearen politika instituzionalak; lankidetzako politika eta prozedura publikoak; prestakuntza; komunikazioa; aliantzak; antolakuntza-egitura eta antolakuntza-kultura. ◀



Gipuzkoa

Koordinakundeak eskaintzen dituen zerbitzu hauek zentralizatzen ditugu, era berean, Gipuzkoako ordezkarriztan: dohaintzen kudeaketa, curriculum vitaeak hartzea eta lan-poltsa, sozialki arduratsuak diren eta kide diren GGKEei abantailak eskaini dakizkieketen enpresen zerrenda...

Gipuzkoako gure egoitza Donostiako erdiguneko lokal batean dago, eta beste kolektibo batzuekin partekatzen dugu. Horri esker, GGKEen sarbidea eta arreta errazten da, baita gizartearena ere, oro har.

Gainera, gogor lan egin dugu Gipuzkoako lurraldean GGKEen presentzia sustatzeko:

- ▶ Probintziako sektore ugariak hainbat erakunde, sare eta plataformen arteko koordinazioan egindako lana azpimarratu nahi dugu; izan ere, lurraldea deszentralizatuta dago askotan, eta eskualdean ordezkarrizta eta kontzentrazio handia dago. Gipuzkoako udalekin egiten ari garen lana bultzatzen jarraitu dugu; izan ere, oso aktiboa den elkarte-mugimendua izatea du ezaugarri.

- ▶ Gipuzkoan aktibo dauden Zero Pobreziaren 5 plataformak koordinatu, dinamizatu eta jarraitu ditugu.
- ▶ Gipuzkoako Lurralde Biltzarra Zarautzen egin da, urrian. Bilkuraren xedea izan zen topagune bat bilatzea Zarautzeko Elkartasun Koordinakundea osatzen duten erakundeekin, bai eta bien funtzionamendua partekatzea eta elkarrekin eraikitzen jarraitzea ere.

Lurraldeko lanaren eraginkortasunerako Eragin Soziala eta Politikoa taldea bi azpitaldetan banatzen da; bate-tik, eragin politikoari dagokiona lantzeko, eta, bestetik, gizarte mobilizazioa eta komunikazioa jorratzeko.

Hartara, Eragin Soziala eta Politikoa taldearen bidez, harreman egonkorak eta naturalak ezarri ditugu Gipuzkoako lankidetzako politikak egiten dituzten eragile nagusiekin:

- ▶ Harreman iraunkorra izaten jarraitu dugu lurraldean ordezkarrizta duten indar politiko guztiekin. Aldizka bildu gara Foru Aldundiko eta udaletako ordezkarriekin eta, gainera, oposizioko talde guztiekin bildu gara, aurrekontuko gaiak lantzeko, batik bat.
- ▶ Udal-lankidetzako eragile arduradunekin lankidetzako politika publikoei ekarpena egiteko eta politikak eta tresnak adosteko asmoarekin, Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluan parte hartzen jarraitu dugu, bai eta udal horretako Batzorde Iraunkorrean ere. Hain zuzen, azken organo horretan egiten dira aztergaien zerrendak eta kontseiluak eurak prestatzeko gainerako gaiak.



Gizarte Mobilizazioa eta Komunikazioa taldeak ekimen desberdinak burutu ditu:

- ▶ Sarean lan egin du beste kolektibo batzuekin Arrazakeriaren aurkako XVIII. Martxa eta Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia antolatzen eta babes-ten. Biak ala biak Donostian egin dira. Bestalde, Gipuzkoako komunikabideekin ditugun harremanak landu ditugu, horietan lankidetzaz ikusgarri egiteko.
- ▶ Bultzatutako lurraldeko ekintza nagusietako bat *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio-jardunaldia izan da. Jardunaldi horren hamahirugarren edizioa irailaren 17an egin da Donostian, Zein da zein? kanpainaren esparruan. Helburua izan da kalean publikoki salatzea pobrezia eta berdintasunik eza eragiten dituzten kausak eta herritarrei horietan sakontzeko eta horiei buruzko gogoeta egiteko aukera eskaintzea. Halaber, gure esku zer dagoen azaldu dugu pobrezia eta berdintasunik ezari aurre egin ahal izateko eta garapen-eredu berri bat eraikitzeko. Jardueraren ardatza bertso- saio bat izan zen, formatu horrek gure kulturaren erro sakonak baititu. Saioan Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariak parte hartu dute, Xabier Euzkitze komunikatzaile eta bertsolariak aurkeztu dute eta trikitilari talde batek girotu du. Landu diren gaitako batzuk kanpaina horretako *Tiritek ez dute pobrezia sendatzen* bideoan lantzen direnak izan dira, hauek, hain zuzen ere: enpresa transnazional batzuek energia eta ura, izugarritzko garrantzia duten sektoreak, kontrolatzea; Nazioarteko Moneta Funtza edo Munduko Bankua bezalako erakunde

zeregina eta hartzen dituzten erabakiek herrialde txirotuenak eragiten dituzten kalteak, edo aberatsen baliabide naturalak ustiatzeko duten modu bidegabea. Jarduera irailaren 15ean aurkeztu zaie komunikabideei, Donostian, kalean egindako antzerki baten bitartez. Jardunaldi horrekin batera, kanpaina bat zabaldu da sare sozialetan.

Aurreko urteetan egindako topaketen ondoren, Gizarte Eraldatzeko Hezkuntza taldeak urratsak ematen jarraitu du unibertsitatean espazio misto bat eraikitzeko, kanpoko eragileek (batik bat, GGKEak) eta erakundeko bertako eragileek osatua. Organismo horretan, aldaketarako gizarte-eragile gisa eragina izatea izan da xedea, lehentasuneko eragilea bihurtu dadin, herritarrengan pentsamendu kritikoaren korronte baten buru izateko. Azken finean, egungo ereduarekin defendatzen den bikaintasun- eta profesionalizazio-adierazleak gaiztoztatzea da helburua, karrera guztietan diziplina bakoitzean gizarte-funtzioa txertatzen duen ikuspegi batekin lan egin dadin. ◀

GIZARTEA

El delegado de Gipuzkoa de la Coordinadora de ONG de Desarrollo de Euzkadi

Irati Orbe
DELEGADA DE GIPUZKOA DE LA COORDINADORA DE ONGD

“Se ha aprovechado la crisis para desmantelar la cooperación internacional”

“No es irrealismo que el dinero que se deja de destinar a la cooperación se va a otros gastos sociales”

“¿Cuáles son los de aquí? Se están utilizando diferentes políticas muy perversas que están afectando a las personas”

que hemos podido partir de las diferentes partes políticas. En realidad como se va a aprovechar en el caso de aquí el caso de la Basca, Navarra, Brno, muy importante, muy importante por Portugal, Dinamarca.

¿Qué hacemos de ahora? “Hay que irnos de aquí. Lo que nos interesa es el dinero que se va a destinar a la cooperación internacional y en este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales.”

de las ONGs que se van a destinar a la cooperación internacional y en este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales.”

de las ONGs que se van a destinar a la cooperación internacional y en este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales. En este momento se va a otros gastos sociales.”



GURE **YouTube**KO KATEAN IKUS DAITEKE BERTSO SAIOAREN BIDEOA

4. Koordinakundeko kideak*



Gobernu Batzordea

Lehendakaritza: Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna.
Lehendakariordetza: Fernando Vaquerizo, Mundubat. **Idazkaria:** Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. **Diruzaintza:** Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak.
Arabako ordezkaria: Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. **Bizkaiko ordezkaria:** Mila Domínguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. **Gipuzkoako ordezkaria:** Iñaki Orube, Mugen Gaietik.

Lan-taldeak

Euskadi

Eragin Soziala eta Politikoa


Nerea Basterra, Oxfam Intermón. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Jesús Ochoa eta Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. María del Mar Magallón, ALBOAN. Fernando Vaquerizo, Mundubat. Amancay Villalba, Unesco Etxea. Eva Silván, Save the Children. Pedro Ibarra, Baltistan Fundazioa. Maite Fernández, Hegoa. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gloria Mora, Egoaiza. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Borja Vazquez, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi Mundi. Iñaki San Miguel, Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza. María Fábregas, Bakerako Lankidetzaz Batzarra. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, medicumundi bizkaia. Katalin Alcuturri, Adsis Fundazioa. Josu Urrutia, Mundukide.

Generoa

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Sarai Martín, Mundubat. Isabel Uría, SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Domínguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Marian Sanz, medicumundi bizkaia. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. María Piñole eta Patricia Hernández, ALBOAN. Nerea Uriarte, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Beatriz Plaza, Bakea eta Duintasuna. Mónica Quintela, UNRWA Euskadi. Sandra Losada, Bakerako Lankidetzaz Batzarra. Nora Ziarsolo, SETEM Hego Haizea.

Koordinakundean sartzeko eskaera berrien Jarraipen Batzordea

Itziar Hernández, Hegoa. Mila Domínguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación -Gobernu Batzordea ordezkatzan-. Idoia Aldama, Koordinazio orokorra.



* 2015aren amaieran.

Urrats bat gehiago hausnarketa prozesuaren talde eragilea

Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Eduardo García Langerica, medicumundi álava/araba. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Gonzalo Fernández, Hegoa. José Ignacio Eguizabal, ALBOAN. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Pedro Ibarra, Baltistan Fundazioa. Josu Urrutia, Mundukide. Idoia Aldama eta Silvia de Gregorio, Talde Teknikoa.

Araba**Eragin Soziala eta Politikoa**

Evan Silván, Save the Children. Itziar Marquinez, medicumundi álava/araba. Luis Royero, Manuel Iradier Elkartea Afrikanista. Ananda Abaigar, Adsis Fundazioa. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Iñaki San Miguel, Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza. Sandra Fernández, Mugarik Gabe.

Bizkaia**Eragin Soziala eta Politikoa**

Nerea Basterra eta Usune Zuazo, Oxfam Intermón. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Jaime Bernar, Zabalketa. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutietako Cáritas. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Amancay Villalba, Unesco Etxea. Ricardo Fernández, medicumundi bizkaia. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Pedro Ibarra, Baltistan Fundazioa. Gloria Mora, Egoaizia. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Laura Castresana, SETEM Hego Haizea. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Borja Vazquez, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi Mundi. María Fábregas, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. Maite Fernández, Hegoa. María del Mar Magallón, ALBOAN. Katalin Alciturri, Adsis Fundazioa.

Gipuzkoa**Eragin Soziala eta Politikoa**

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Gurutze Aizpurua, FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa Mariaren Lagundia. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Xabier Martínez, Mugarik Gabe.

Gizarte Mobilizazioa eta Komunikazioa

Yoanna Amondarain, ADSIS Fundazioa. Ane García, Behar Bidasoa. Ana Mocoroa, Elan Euskadi. Pello Sarasua, Interred Euskal Herria. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Idoia Azpilicueta, PROYDE-PROEGA.

Gipuzkoan dauden Zero Pobrezia 5 plataformetan parte hartzen duten erakundeak ez dira hemen sartzen.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza

Izaro Basurko, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, medicumundi gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zárate, Mugen Gainetik. Edurne Gallo, Calcuta Ondoan. Olaia Larruskain, Emaüs Gizarte Fundazioa.

Erakundeetan partaidetza**Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea**

Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna eta Nerea Basterra, Oxfam Intermón.

Euskal Lankidetzeta Kontseilua

Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Eva Silván, Save the Children. María del Mar Magallón, ALBOAN. Nerea Basterra, Oxfam Intermón. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutietako Cáritas. Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. María Viadero, Mugarik Gabe. Josu Urrutia, Mundukide. Agustín Ortiz, PROCLADE YANAPAY. Silvia Felipe, Mundubat.

Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseilua

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Vitoria-Gasteizko Garapenean Laguntzeko Kontseilua

Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa.

Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua

Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan.

Talde Teknikoa

Idoia Aldama, Koordinazio orokorra. Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa. Erika Erkizia, Idazkaritza teknikoak. Irene Molero, Sareak. Natalia Rodríguez, Eragin Soziala eta Politikoa. Silvia de Gregorio, Ikerketa, formakuntza eta generoa. Jon González, Komunikazioa.



GGKEak

Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza
 Acción Verapaz Euskadi
 ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
 ADRA
 Adsis Fundazioa
 ALBOAN
 Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
 Ayuda Mas
 Bakea eta Duintasuna
 Bakea eta Elkartasuna Euskadi
 Bakerako Lankidetzaz Batzarra
 Baltistan Fundazioa
 Behar Bidasoa
 Bilboko Elizbarrutietako Cáritas
 Bizilur
 Bultzapen
 Calcuta Ondoan
 Cáritas Gipuzkoa
 Compartir
 Edex Centro de Recursos Comunitarios
 Egoaizia
 Elan Euskadi
 Elizbarrutietako Euskal Misioak
 Emaús Gizarte Fundazioa
 Euskadi-Cuba
 Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
 Farmacéuticos Mundi-Farmamundi
 FISC cooperación y desarrollo
 FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa
 Mariaren Lagundia

Garabide
 Garapena
 Gazteak eta Garapena
 Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza
 Gizakien Lurra
 Haurralde Fundazioa
 Hegoa
 Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
 Ingeniería para la Cooperación-
 Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI)
 Interred Euskal Herria
 Iquitanz
 ISCOD Euskadi
 Itaka Escolapios Fundazioa
 Kainabera
 KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo
 Leonekin
 Manos Unidas
 Manuel Iradier Elkarte Afrikanista
 medicusmundi álava/araba
 medicusmundi bizkaia
 medicusmundi gipuzkoa
 MSH Mundu Solidarioa Helburu
 Mugarik Gabe
 Mugarik Gabeko Arkitektoak
 Mugarik Gabeko Ekonomilariak
 Mugarik Gabeko Hezkuntza
 Mugen Gaietik
 Mundu Bakean
 Mundubat

Mundukide
 Munduko Landagunea
 Munduko Medikak
 OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
 Oxfam Intermón
 Pausumedia
 PROCLADE YANAPAY
 PROSALUS
 PROYDE PROEGA
 ROKPA Euskadi
 Save the Children
 SEADen Lagunen Elkartea Araba
 SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
 SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
 SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
 SERSO San Viator de Euskal Herria
 SETEM Hego Haizea
 SODEPAZ Euskadi Solidaridad
 para el Desarrollo y la Paz
 Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna
 SOLIVE Solidaridad Vedruna
 TAU Fundazioa
 UNESCO Etxea
 UNRWA Euskadi
 Zabalketa

Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaziguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...



5. Kontu argiak

Sarrerak 2015	Burutua (€)	%
Kuotak	30.708	8,06
Eusko Jaurlaritza	207.500	54,50
Arabako Foru Aldundia	15.000	3,94
Bizkaiko Foru Aldundia	34.000	8,93
Gipuzkoako Foru Aldundia	35.000	9,19
Bilboko Udala	18.000	4,73
Donostiako Udala	34.150	8,97
Jarduerengatik sarrerak	6.431	1,68
Guztizkoa	380.789	100

Gastuak 2015	Burutua (€)	%
Bulegoko materiala	6.548	1,75
Soldatak	279.899	74,91
Bidaiak	6.622	1,77
Kanpo zerbitzuak	65.699	17,58
Funtzionamendua	14.894	3,99
Guztizkoa	373.662	100
Emaitza (€)	7.127	

2015KO KONTUAK ABANTE AUDITORES
 KANPOKO ENPRESAK IKUSKATU DITU
 ETA EGIAZTATU DU LEIALKI ISLATZEN DUTELA
 KOORDINAKUNDEKO ONDAREA
 ETA BERE FINANTZA EGOERA.
 INFORMAZIO GEHIAGO **WEBEAN**

Araba

Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa

01001 **Vitoria-Gasteiz**

Tel. 945 280 745

araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbao**

Tel. 944 150 300

bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea

20001 **Donostia**

Tel. 943 463 526

gipuzkoa@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.

Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak

Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteiz
Udala



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzeta Bulegoa
Negociado de Cooperación

Euskararekin bat

